



BATURA ZIKLO AITZINDARIAK DIASPORAN AHAZTUTAKO EUSKAL MUSIKA KLASIKOA BERRESKURATUKO DU NAZIOARTEKO MUSIKARIEKIN

- **Jaialdiaren 2. edizioak Amerika eta Europako artxiboetan hamarkada luzeetan galdutako euskal musika klasikoari balioa eman nahi dio, Euskadin eta Estatuko hiri batzuetako formatu txikiko hamabost bat kontzertutan.**
- **Josu Okiñena musikariak bultzatuta, euskal musika klasikoa eta nazioarteko erreperitorioa lantzen dituen lehen zikloa da, eta mundu mailako artista ospetsuek interpretatuko dute euskal herritarrengana hurbidu asmoz.**

Areto guztiak betez arrakasta handia lortu ondoren, BATURA Zikloaren bigarren edizioa datorkigu orain. Ekimena aitzindaria da bere generoan, eta lehen aldiz euskal musika eta nazioarteko erreperitorioa uztartu ditu. 2021ean eta 2022an, besteak beste, Errusia, AEB, Belgika eta Italiako nazioarte mailako artistek Gipuzkoako hainbat herritan interpretatuko dituzten formatu txikiko hamabost errezitaldi izango dira. Baita espainiar Estatuan barna ere.

Josu Okiñena pianista, ikertzaile eta ekimenaren sortzailearen hitzetan, "ganbera formatuko kontzertuak edo bakarlariak dira, hiruzpalau instrumentista arteko formazioekin, eta euskal erreperitorioa eta nazioarteko erreperitorioa batera programatuko ditugu".

Aurtengo edizioaren lorpenei buruz galdetuta, donostiarrak azpimarratu du "bigarren urtea" dela antolatzen duena: "Tartean pandemia bat dugu, lehenengo edizioan baino ia bi aldiz kontzertu gehiago antolatu ditugu eta helburua dela euskal diasporan egindako musika berreskuratzea. Ahalegin handia izan da, lan orduak eta egunak, baina oso pozik eta harro nago halako lan handia aurkezteaz".

Izan ere, ziklo berezi honen edizio berriak, besteak beste, Lizarrako Olazaran, Mugica, Tosar, Madina edo Zubeldia egileen musika berreskuratu eta balioetsi nahi du, hamarkada luzeetan euskal diasporan konposatu eta ahaztuta izan baitira. Orain Okiñenak Amerikako eta Europako hainbat artxibotan berreskuratu ditu. "Bigarren jaialdi honetan, apustua da sartzea euskal kultura historikoki finkatu den lurraldeetatik at diasporan idatzitako egileen konposizioak". Izan ere, konposizio horietako asko, gainera, lehen aldiz interpretatuko dituzte.

Era berean, errezitaldi horiek "prozesu baten amaiera" ekarriko dute: "Eskuizkribuen aurkikuntzarekin hasi zen dena, edo Eresbil bezalako erakundeetan gordeta dauden dokumentuen azterketarekin, ondoren horietako asko grabatuz, eta, azkenik, errezitaldien programazioarekin amaitzen da, konposizio horiek jendearen aurrean jo ditzaten. Hori guztia BATURA Zikloan jasota dago, non Euskal Herriko musika nazioarteko erreperitorio handiarekin batera gailenduko den, kalitate bereko erreperitorioa baitugu".

Kontzertu didaktiko "goxoak"

Kontzertuak modu "didaktikoan, atseginean eta hurbilean" egingo dituzte, artistek azalpen laburrak edo konposizioen testuinguruak egingo baituzte interpretatu aurretik.

Errezitaldien ezaugarriei dagokienez, antolatzaileak esan du errezitaldi ugari daudela: "Pianorako errezitaldiak daude, gitarrarako bakarrik edo jazz laukoterako, musika ez akademikoari, ez klasikoari ere keinu bat egin nahi diogulako, funtsezkoa iruditzen zaigulako bertan egotea".

Okiñenak azpimarratu duenez, oraindik ere beharrezkoa da gure musika klasikoaren programazioa nazioartekoarekin handitzea, eta egokia da entzulearen ulermena erraztuko duen azalpena edo informazioa.

Hala, errezitaldi horietan publikoak harreman musikalak eta pertsonalak aurkitu ahal izango ditu. Haien arteko eraginak ere bai: "Eta, batez ere, euskal musikak munduan zehar izan duen ondare eta oihartzun handia", dio antolatzaileak.

Kontzertu bakoitzaren berezitasunen eta ezaugarrien arabera, artistek lan bakoitzaren alderdirik garrantzitsuenak deskribatzen saiatuko dira, erreperitorio hori errazago ulertzeko eta, batez ere, aurkitzeko; izan ere, ziur aski, erreperitorio horrek "pertsona bat baino gehiago aho bete hortz" utziko baitu.

Nazioarteko errezitaldietan sartzea

Nabarmendu behar da zikloak bere helburuetatik haratago joan nahi duela. Izan ere, "nazioarteko artista horiek guztiek beren erreperitorioetan eta ohiko zirkuituetan sartzen dituzte konposizio horiek, eta, beraz, esponentzialki biderkatzen da erreperitorio honen hedapena".

Hain zuzen ere, hori gertatzen da behin musikariak kontzertu batean interpretatzeko sartzen duenean, "ondoren gainerako erreperitorio eta jaialdietarako sartzen jarraitzen duelako".

KONTZERTU-EGUTEGIA

Donostia (Victoria Eugenia Club)

- 21/11/21 - Rafael Aguirre, gitarra
- 21/11/27 - Massimo Somenzi, pianoa
- 22/02/06 - Konstantin Soukhovestki, pianoa
- 22/03/08 - Gloria De Piante Vicin, pianoa

Sarrerak: donostiakultura.eus/sarrerak

Hondarribia

- 22/02/06 - Duo Somenzi - Zanchetta

Beasain (Igartza Musika Zikloa)

- 2022/04/24 - Le Quartet Ideal

Andoain (Bastero Kulturgunea)

- 2022/02

Eibar (Coliseo Antzokia)

- 2022/04

Bilbo

- 2022/02-03

Gasteiz

- 2022/02-03

Madril

- 2022/02-03

Lanzarote

- 2022/04-06





Nota de prensa

EL PIONERO 'BATURA ZIKLOA' RESCATARÁ MÚSICA VASCA OLVIDADA EN LA DIÁSPORA DE LA MANO DE ARTISTAS INTERNACIONALES

- **La segunda edición del festival pretende poner en valor la música vasca olvidada durante décadas en archivos de América y Europa a través de una quincena de conciertos de pequeño formato tanto en Euskadi como en el resto del Estado.**
- **Impulsado por el músico Josu Okiñena, se trata del primer ciclo que programa la música vasca junto al repertorio internacional interpretada por artistas de renombre mundial.**

Tras el gran éxito del primer festival con todas las salas repletas, llega la segunda edición de 'BATURA ZIKLOA', una iniciativa pionera en su género que aúpa por vez primera la música vasca aunándola con el repertorio internacional. Serán quince los recitales de pequeño formato que a lo largo de 2021 y 2022 interpretarán en diferentes localidades de Gipuzkoa artistas de talla internacional de Rusia, EEUU, Bélgica o Italia, entre otros lugares. También en otras ciudades del Estado.

En palabras de Josu Okiñena, pianista, investigador y creador de la iniciativa, "se trata de conciertos en formato camerístico o solista, con formaciones de hasta tres o cuatro instrumentistas. Se programará conjuntamente repertorio vasco junto con el repertorio internacional".

Preguntado por los logros de esta edición, el donostiarra subraya que "es el segundo año que lo organizamos, con una pandemia de por medio, con casi el doble de conciertos que en la primera edición y con el objetivo de recuperar la música elaborada en la diáspora vasca. Ha sido mucho esfuerzo, horas y días de trabajo, pero estoy muy contento y es todo un orgullo presentar un trabajo de tal magnitud".

De hecho, la nueva edición de este singular ciclo pretende "rescatar y poner en valor" la música de autores y autoras como Olazaran de Estella, Mugica, Tosar, Madina o Zubeldia entre otros, compuesta y olvidada en la diáspora vasca durante décadas y rescatada por Okiñena en distintos archivos de América y Europa. "La apuesta en esta segundo festival es introducir composiciones de autores y autoras que han escrito en la diáspora, fuera de los territorios donde la cultura vasca se ha asentado históricamente", apunta. No en vano, muchas de estas composiciones, además, se interpretarán por vez primera en Euskadi.

Asimismo, dichos recitales supondrán "la culminación" de un proceso: "Todo arranca con el descubrimiento de manuscritos o a partir del análisis de los documentos que se encuentran custodiados en instituciones como Eresbil, con la posterior grabación de muchos de ellos y, finalmente, culmina con la programación de los recitales para que suenen esas composiciones ante el público. Todo ello se encuentra recogido en BATURA Zikloa, donde la música de Euskal Herria brillará junto al gran repertorio internacional, ya que tenemos un repertorio con una calidad equiparable".

Recogidos conciertos didácticos

Los conciertos se realizarán de "forma didáctica, amena y cercana", ya que los y las distintas artistas realizarán breves explicaciones o contextualizaciones de las composiciones antes de interpretarlas.

En cuanto a las características de los recitales se refiere, el organizador apunta que existen gran variedad de ellos: "Hay recitales para piano solo, para guitarra sola o incluso para cuarteto de jazz, porque queremos hacer un guiño también a la música no académica, no clásica, porque nos parece fundamental que esté presente también".

Tal y como ha subrayado Okiñena, "sigue siendo necesario aumentar la programación de nuestra música clásica con la internacional y, resulta adecuada una explicación o información que favorezca la comprensión del oyente".

Así, en dichos recitales el público podrá encontrar las diferentes relaciones musicales y personales. También las influencias entre ellos y ellas: "Y sobre todo el gran legado y la gran repercusión que ha tenido la música vasca a lo largo del mundo", señala el organizador.

Dependiendo de las peculiaridades y características de cada concierto, los y las artistas intentarán "describir los aspectos más relevantes" de cada una de las obras "para facilitar la comprensión y, sobre todo, el descubrimiento de este repertorio que, seguramente, no dejará indiferente a nadie".

Inclusión en recitales internacionales

Cabe destacar que el ciclo pretende ir más allá en sus fines, ya que "todos estos artistas de talla internacional introducen dichas composiciones tanto en sus repertorios como en sus circuitos habituales, con lo cual se multiplica exponencialmente la difusión de este repertorio".

Esto, en concreto, es debido a que una vez que la o el músico lo incluye para interpretarlo en un concierto, "lo sigue incluyendo posteriormente para el resto de repertorios y festivales".

CALENDARIO CONCIERTOS

Donostia (Victoria Eugenia Club)

- 21/11/21 - Rafael Aguirre
- 27/11/21 - Massimo Somenzi
- 06/02/22 - Konstantin Soukhovestki
- 08/03/22 - Gloria De Piante Vicin

Entradas: donostiakultura.eus/sarrerak

Hondarribia

- 06/02/22 - Duo Somenzi - Zanchetta

Beasain (Igartza Musika Zikloa)

- 24/04/2022 - Le Quartet Ideal

Andoain (Bastero Kulturgunea)

- 02/2022

Eibar (Teatro Coliseo)

- 04/2022

Bilbao

- 02-03/2022

Gasteiz

- 02-03/2022

Madrid

- 02-03/2022

Lanzarote

- 04-06/2022